

**CADIZKO KONSTITUZIOAREN ALDEKO SERMOIA
EUSKARAZ, HIRURTEKO LIBERALAREN GARAIAN
(1820-1823)**

1. Aurkezpena

Artikulu honetan euskarazko testu bitxi bat aurkeztu nahi dugu. Egia esan, testua sermoi bat baino ez da eta, dakigunez, euskal letren altxorrean halako testu asko eta asko gordetzen dira. Baina idazkiari bitxitasuna eta balio berezia gaitik datorkio: gure sermoia 1820. urtetik aurrera indarrean egon zen Konstituzio liberalaren aldekoa da eta kontuez gain politikaz ari da.

Topikoak dio euskal elizaren joera XIX. mendean erabat tradiziozalea izan zela, salbuespenak salbuespen; laburpen modura, hauxe idazten du Coro Rubio historiagileak XIX. mendeko lehenengo urteetako egoera eta elizari buruz: *“se inició en esta época un peligroso compromiso antiliberal y absolutista del clero vasco, que se reforzara durante el Trienio liberal (gure testuaren garaia) y explotará en 1833 (lehenengo karlistaldia)”*¹.

Hala ere, azken urteetan plazaratutako lan eta datu batzuei esker, elizgizon euskaldun batzuen lana ezagutu dugu, beti ere, liberalismoaren ildotik².

¹ RUBIO POBES, Coro: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*, Siglo Veintiuno de España Editores, Madril, 1996, 11. or.

² Ikus, laburpen modura, gure artikulua: GALLASTEGUI ARANZABAL, César: “La difusión del Liberalismo en el País Vasco: de la *Carta Pastoral* de Luís de